Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu
Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://bidasoa.hitza.eus/cookieak/).

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=23204430&insid=8451562&pgid=1024015&ckid=5784961765964326159&uii=2379485674230674 69&acd=1559632912986&pubid=15&tmstp=5498101776&tgt=%24dt%3d1t%3b%24dt%3d1t%3b%24hc&systgt=%2k-bizkortze-teknika-familian-ikasteko-tailerra-egingo-du%2f&go=http%3a%2f%2fwww.iragarkilaburrak.eus)

DYA-k bizkortze teknika familian ikasteko tailerra egingo du

(https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https%3A%2F%2Fbidasoa.hitza.eus%2F2018%2F03%2F14%2Fdya-k-bizkortze-teknika-familian-ikasteko-tailerra-egingo-du%2F)

Hondarribia (https://bidasoa.hitza.eus/herriak/hondarribia/) Gizartea (https://bidasoa.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Familia bakoitzak bat, bi edo hiru umerekin eman dezake izena. Hilaren 24an egingo dute, Soroetagaineko egoitzan.

2018 (https://bidasoa.hitza.eus/2018)/03 (https://bidasoa.hitza.eus/2018/03)/14 (https://bidasoa.hitza.eus/2018/03/14)

Asier Perez-Karkamo

(http://bidasoa.hitza.eus/2018/03/14/dya-k-bizkortze-teknika-familian-ikasteko-tailerra-egingo-du/dya-bbs-familian/)

Bihitz suspertze teknika ikasteko bideoklipa grabatu du DYAk (ikusi behean)

DYAko Irakaskuntza Eskolak Bihotz Biriketako Bizkortze (BBB) teknika familian ikasteko tailerra egingo du Hondarribian. Hilaren 24an izango da, Soroetagain kaleko egoitzan, 17:00etatik 19:00etara.

Tailerrean 6 urtetik gorakoek parte har dezakete, gurasoen edo helduren baten laguntzarekin. Familia bakoitzak bat, bi edo hiru umerekin eman dezake izena.

DYAk jakinarazi duenez, bi ordukoa eta erraza izango da tailerra: “Modu erraz eta praktiko batean, bihotz-geldialdi bat identifikatzen eta honen aurrean jokatzen ikasiko dute. Gainera, etxeko txikienekin aldarte ona pasatzeko aukera paregabea izan daiteke”.

Lantegiaren kostua 8 eurokoa izango da helduentzat eta doakoa 17 urtez beherakoentzat. Lekuak mugatuak dira, “emandako prestakuntzaren kalitatea bermatzeko”. Izena eman edo informazio osagarria eskatu nahi duenak, 943 46 46 22 telefono zenbakira dei dezake.

Tokiko informazioa profesionaltasunez eta euskaratik, modu librean kontatzea da gure eginkizuna. Horretarako zure ekarpena beharrezkoa da, eta ongi maitatzeko modurik zintzoena da HITZAkide egitea.

egin zaitez HITZAkide (https://bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan/) Hauteskundeak M26 (https://bidasoa.hitza.eus/hauteskundeak/m26/)